



www.uzturpe.eus



ETXERAKO LANAK

Etixerako lanak sistematikoki erabilitako tresna izan ordez, helburu batzuk lortzeko eta behar batzuk asetzeko baliabide izan beharko lukete.

Helburu orokorrak:

- Ardurak hartu.
- Autonomia garatu.
- Lan ohiturak landu.
- Gurasoekin elkarlana bultzatu.

ZERTARAKOAK	TIPOLOGIA
Entrenamendurako	gelan barneratutakoaren aplikazio jarduerak (jolas, fitxa, ariketa osagarriak, blogetan horretara bideraturiko jolas, jarduerak...)
Landutakoa barneratzeko	eskemak, laburpenak...
Sormena lantzeko	bideoak, audioak, marrazkiak, ipuinak..
Etxearekin zubi lana egiteko	txoko txuria, informazioa lortu...
Errefortzurako	gurasoekin adostutakoak, zehatzak, beharrak aztertuz, pertsonalizatuak.
Proiektuak osatzeko	informazio bilketa, argazki, elkarrizketa,...
Gaiaren aurre lanketa bat egiteko	Flippedclassroom. Etxean gai bati buruzko informazioa irakurri, ikus araziko zaie (eduki berriak izan daitezke) eta gero gelan landu, zalantzak argitu. Ikasleen autonomia, denboraren erabilgarritasuna...



www.uzturpe.eus



ERABAKIAK

LH

- Irakasleak gelako agendan apuntatuko du egin beharreko lana zein den eta zenbat denbora aurre ikusten duen beharko dela lan hori egiteko.
- Ostiraletik astelehenerako tartean ez da etxerako lanik bidaliko.
- Opor garaitan ez dira lanak bidaliko, indartze neurriak izan ezik.
- Denboralizazioa zaindu. Etxerako lanek ez dute zertan egun batetik besterakoan izan behar.
- Aniztasuna zaindu. Etxerako lanek ez dute zertan denentzat berdinak izan behar.
- Maila bereko gelen arteko desorekak ekidingo ditugu. Etxerako lanei buruzko erabaki zehatzak adostuko ditugu.
- Hizkuntzetan, liburuen lanak, hilabete ezberdinetan banatu, lanak ez pilatzeko.

DBH

- Opor garaitan ez dira lanak bidaliko, indartze neurriak izan ezik.
- Irakasleak gelako agendan apuntatuko du egin beharreko lana zein den eta zenbat denbora aurre ikusten duen beharko dela lan hori egiteko.
- Denboralizazioa zaindu. Etxerako lanek ez dute zertan egun batetik besterakoak izan behar. Egunean ordu bateko lan muga ez gainditzen saiatu.
- Aniztasuna zaindu. Etxerako lanek ez dute zertan denentzat berdinak izan behar.
- Hizkuntzetan, liburuen lanak, hilabete ezberdinetan banatu, lanak ez pilatzeko.
- Maila bereko gelen arteko desorekak ekidingo ditugu. Etxerako lanei buruzko erabaki zehatzak adostuko ditugu.